



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Haregan sinesten dauana ez dago kondenatua”

2021eko martxoaren 14a  
Garizumako 4. igandea (B)

### Joan 3, 14-21

Aldi haretan, Jesusek esan eutsan Nikodemori:

«Moisesek basamortuan brontzezko sugea jaso eban lez, halan izan behar dau jaso Gizonaren Semeak, Haregan sinesten dabene guztiek betiko bizia izan dagien. Izan ere, hain maite izan eban Jainkoak mundua, bere Seme bakarra emon eutsan, Haregan sinesten dauanik inor galdu ez daiten, betiko bizia izan dagian baino. Jainkoak ez eban-eta bere Semea mundura bialdu, mundua kondenatzera, haren bitartez mundua salbatzera baino. Haregan sinesten dauana ez dago kondenatua; sinesten ez dauana, barriz, kondenatua dago jadanik, Jainkoaren Seme bakarraren izenean sinestu ez daualako. Hauxe da kondenazioaren arrazoia: argia mundura etorria dala, eta gizakiek ilunpea gurago izan dabela argia baino, haren egiteak gaiztoak ziralako. Izan ere, txarto egiten dauanak gorrotoa deutso argiari, eta ez dator argitara, bere egiteak agirian gelditu ez daitezana. Egiazen arabera diharduana, barriz, argitara dator, haren egiteak Jainkoak gura lez eginak dirala agertu daiten».

Izan be, Jaungoikoak bere Semea mundura ez dau mundua epitzera bialdu, beronen bidez mundua salbatu daiten baino.

## JAINKOAK MUNDUA MAITE DU

*Jose Antonio Pagola*

Ez da edozein esaldi. Ez dira Ebanjeliotik ezaba daitezkeen hitzak, garrantziko zerbait aldatu gabe. Kristau-fedearen funtsezko muina biltzen duen baieztapena da. «*Hartaraino maite izan zuen Jainkoak mundua, non bere Seme bakarra eman baitzuen*». Jainkoaren maitasun horixe da gure esperantzaren jatorria eta oinarria.

«**Jainkoak mundua maite du**». Den bezalakoa maite du. Bukatu gabea eta ziurtasunik gabea. Gatazkaz eta kontraesanek bete. Hoberenerako eta okerrenerako gai dena. Mundu hau ez doa bakarrik bere bidean, ez dabil galdurik eta babesik gabe. Jainkoak bere maitasunaz inguratua du, lau aldeetarik. Inportantzia handiko ondorioak ditu horrek.

Lehenik eta behin, Jesus, beste ezer baino lehen, Jainkoak munduari, eta ez kristauei bakarrik, egin dion «*erregalua*» da. Ikertzaileak hor jardun daitezke ezbaian, munduaren azkeneraino, Jesusen irudi historikoaren mila alderdiren inguruan. Teologok hor jarrai dezakete teoriarik zorrotzenak bilbatzen. Jainkoaren erregalu handizat hartuz, Jesukristori hurbiltzen zaionak bakarrik aurkitu ahal izango du haren keinu guztietan, zirraraz eta pozik, Jainkoak gizakiarekiko bizi duen hurbiltasuna.

Bigarren. Hau da Elizaren izateko arrazoi bakarra, hura munduan izatea zuzitzen duen arrazoi bakarra: Jainkoaren maitasuna gogoraraztea. Behin eta berriz errepikatu du hori Vatikanoko II.a kontzilioak «*gizon-emakume guztiei Jainkoaren maitasuna agertzera eta komunikatzera bidali du Kristok*» Eliza. Ez da joan-etorri handiagoko gauzarik. Jainkoaren maitasun hori gizakiei adieraztea da lehenengo egitekoa.

Hirugarren. Ebanjelariaren arabera, Jesus emanik Jainkoak munduari egin dion erregalu handi hori, «**ez da mundua juzgatzeko, baizik haren bidez mundua salba dadin**». Oso arriskutsua da mundu modernoaren salaketa eta gaitzespena egitarau pastoral bihurtzea. Guztiekiko maitasunez bihotza beterik bakarrik gonbida dezakegu elkar bihotz-berritzera. Jendeari ikusarazi nahi badiogu Jainkoak gaitzetsia dela, ez gara ari Jesusen mezua eskualdatzen, beste zerbait baizik; agian, geure erresumina eta amorrua.

Laugarren. Dena nahasia, ziurtasunik gabea eta gogo-galtzailea dela eman duen honetan, ezerk ez digu eragozten munduan maitasun-apur bat ereitea. Horixe egin zuen Jesusek berak. Ez da zertan egon ezere zain. Zergatik ez dute izan behar gaur egun gizon eta emakume onak, gure artean sufritzen ari direnekiko maitasuna, adiskidetasuna, errukia, zuzentasuna, sentiberatasuna, laguntasuna... ereingo dutenak? Horiek dira ari eraikitzen Jesusen Eliza, maitasunaren Eliza.